El Ayuntamiento Pleno de Donostia-San Sebastián insta al Alcalde a que, a la mayor brevedad posible, atienda la reiterada solicitud y se reúna con la Asociación de Vecinos Urumea -Urumeako Bizilagunen Elkartea para tratar los temas planteados por esta entidad en relación al barrio.

Donostia/ San Sebastián, a 17 de Febrero de 2017

José María Murguiondo Casal
Concejal del Grupo Popular".

Jose Maria Murguiondo Casal jaunak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto el señor D. José María Murguiondo Casal, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**12., 18. ETA 31. KONTROL MOZIOAK BATERA AZTERTU DIRA /**

**SE TRATAN CONJUNTAMENTE LAS MOCIONES DE CONTROL N.º 12, N.º 18 y N.º 31:**

**II.2.12. Kontrol mozioa, PP Taldeak egina, Uliako mintegiak eta ur biltegiak direla eta.**

"José María Murguiondo Casal Talde Popularreko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, MOZIO hau aurkeztu nahi dio Udalbatzari, Gune Publikoen Batzordeak (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) 2017ko otsailaren 13an izan zuen bileran Uliako mintegi eta biltegiez egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Uliako Auzo Elkarteak jakinarazi duenez, Donostiako Udalak urtarrilaren 27an, ostiralean, jarritako oztopoen ondorioz, bertan behera utzi behar izan zituzten asteburu horretan Uliako mintegietako ur biltegietara egitekoak ziren bisita gidatuak.

Dirudienez, hogei egun lehenago, espazio hori kudeatzen duen elkarteak Udalari jakinarazi zion asteburu horretan, azken bi urteetan bezalaxe, bisita gidatuak egin behar zituztela ur biltegietara. Baina urtarrilaren 27an, ostiralarekin, Udalak beste segurtasun neurri batzuk hartzeko eskatu zion elkarteari. Hain denbora gutxian Udalaren eskakizuna bete ezin

**II.2.12. Moción de control que presenta el Grupo PP relativa a los Viveros y Depósitos de Ulia.**

"Don José María Murguiondo Casal, concejal del grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en Pleno la siguiente MOCION a consecuencia de la Interpelación substanciada ante la Comisión de Espacio Público. Obras Y Servicios Urbanos, celebrada el día 13 de Febrero de 2017, relativa a los Viveros y Depósitos de Ulía.

JUSTIFICACION

La Asociación de Vecinos de Ulía ha dado a conocer que, a consecuencia de las trabas puestas por el Ayuntamiento de San Sebastián el pasado viernes día 27 de enero, las visitas guiadas previstas ese fin de semana a los depósitos de agua de los Viveros de Ulía tuvieron que ser suspendidas.

Al parecer, con una antelación de veinte días la Asociación que gestiona el espacio, comunicó al Ayuntamiento que ese fin de semana se iban a efectuar visitas guiadas a los depósitos, tal y como lo han venido realizando en los últimos dos años. Sin embargo, el viernes 27 de enero el Ayuntamiento exige a esta entidad la adopción de nuevas medidas de seguridad. Como en un plazo

zutenez, antolatzaileek bertan behera utzi behar izan zituzten asteburu horretarako programatuta zeuzkaten bisita gidatuak.

tan breve no era posible atender el requerimiento del Ayuntamiento, alegan los organizadores que tuvieron que suspenderse las visitas guiadas programadas para ese fin de semana.

Uliako Auzo Elkarteak adierazi du duela bi urte, finka ezagutarazteko bisitak antolatzen hasi zirenean, Udalak eskatutako segurtasun neurri guztiak bete zituztela eta arazorik gabe jardun dutela urtarrilaren 27ra arte, hau da, zabalkunde lan hori eten zuten egunera arte.

La Asociación de Vecinos de Ulía señala que, cuando se iniciaron las visitas a esta finca, hace dos años, se dio cumplimiento a todas las medidas de seguridad exigidas por el consistorio, y que la actividad se ha venido realizando sin problemas durante este tiempo, hasta el pasado 27 de enero, cuando se ha interrumpido esa labor divulgadora.

Gogorarazi behar dugu bizilagunek, Uliako Lore Baratzak programaren bidez, Uliako mintegi eta biltegi zaharrek osatzen duten eremua kudeatzen dutela eta hainbat jarduera egiten dituztela han, haurrentzako eta adinekoentzako ikastaroak eta lantegiak, esaterako, naturarekin loturiko alderdiak ezagutarazteko –hala nola baratzezaintza, landareak edota ingurunearen errespetua–. Izan ere, ingurune natural horretan askotariko zuhaitzak (hirurogei espezietik gora), hegaztiak (34 daude erroldatuak) eta anfibioak daude eta balio paisajistiko handia du.

Hay que recordar que los vecinos, mediante el programa Uliako Lore Baratzak gestionan el espacio de los antiguos viveros y depósitos de Ulía, donde realizan diversas actividades -como cursos y talleres para niños y mayores-, con objeto de dar a conocer aspectos relacionados con la naturaleza, tales como la horticultura, la flora o el disfrute y respeto del medio en un entorno natural que cuenta con variedad de arbolado (más de sesenta especies), aves (34 censadas) y anfibios; y que atesora un importante valor paisajístico.

Goikoa arkitektoak eta Pierre Ducasse lorezainak diseinatu zuten parkea, eta horren emaitza multzo historiko, kultural eta sozial interesgarri bat izan zen. Orain, elkarteko kideek beren borondatez txukuntzen eta mantentzen dute multzo hori, auzoari, inguruneari eta hiri osoari zerbitzua emateko. Gainera, auzoko eta inguruko bizilagunen topaleku ere bada, gune publikoak eta aisialdirako eremuak falta baitituzte alde horretan.

El parque fue diseñado por el arquitecto Goikoa y el jardinero Pierre Ducasse, formando un interesante conjunto histórico, cultural y social que, de forma voluntaria, miembros de la Asociación se encargan de acondicionar y mantener para dar servicio al barrio, al entorno y al conjunto de la ciudad. Y, además, sirve de punto de encuentro de vecinos del propio barrio, y de otros cercanos, ante la falta de espacios públicos y zonas de esparcimiento en la zona.

Bestalde, elkartea arduratzen da ur biltegi zaharrei balioa emateaz ere. 1872an eta 1894an inauguratutako biltegiok 1982ra arte hornitu zuten hiria urez, eta Udalak babestuak dauzka, duten kultura eta gizarte balioarengatik. Hortaz, hiriari zerbitzu gehigarri bat ematen dio elkarteak.

Asimismo, la Asociación se encarga de la puesta en valor de los antiguos depósitos de agua, inaugurados en 1872 y 1894, que abastecían a la ciudad hasta 1982 y que están protegidos por el Ayuntamiento por su valor cultural y social; dando, así, un servicio adicional a la ciudad.

Uliako bizilagunek egindako programa hori Gizarte Berrikuntzaren eredu gisa hautatu zuten iaz, Espainiako beste hamar arkitektura proiekturekin batera. Gainera, Espainiako sari bat jaso dute, sostengagarritasunaren eta ingurumen babesaren arloan egiten duten lanarengatik, bai eta Eusko Jaurlaritzaren beste sari bat ere (Elkarlan saria), gizarte eta ingurumen kohesioaren arloan partaidetza sustatzeagatik.

Joan den batzordean, zinegotzi ordezkariak onartu zuen Uliako Auzo Elkarteak salatutako egoera gertatu zela eta lanean ari zirela haiekin –bilera bat ere egina zuten–, Herri Babesarekin eta Cristina Enea Fundazioarekin, egoera leheneratzeko eta instalazioak hobetzeko lanei ekiteko, bai eta finkan egiten diren bisiten segurtasuna bermatzeko plan bat egiteko ere. Horrez gain, adierazi zuen udal gobernuaren asmoa zela, ahal izanez gero, otsailean bertan ekitea lanei eta bisita gidatuekin berriz hastea.

Horrez gain, gogorarazi behar dugu udaletxean hainbatetan eztabaidatu dela Udal Administrazioaren arretarik handiena merezi duten parkeko elementu babestu horiei buruz. Horren inguruan, joan de maiatzean, gure talde politikoak kontrol mozio bat sartu zuen udalbatzarrean –gehiengoz onartua–, eta, haren bidez, udal gobernuari hertsiki eskatu zion aurkez zezala Uliako mintegien lursailerako proiektu integral bat, ur biltegiei balioa emateko modua aintzat hartuko zuena eta espazio hori eta gainerako lursaila berreskuratuko zuena herritarrek erabiltzeko eta gozatzeko gune publiko gisa.

Gaur egun, agindu politiko hori, gobernu taldeak maiatzean onartua, ez da gauzatu, eta, hori dela eta, talde popularrak MOZIO hau aurkezten du:

Este programa desarrollado por los vecinos de Ulía ha sido seleccionado, el pasado año, con otros diez proyectos de arquitectura a nivel nacional como ejemplo de Innovación Social. Además, han recibido un premio nacional por su trabajo en relación a la sostenibilidad y la protección del Medio Ambiente, así como otro del Gobierno Vasco (el premio Elkarlan) por fomentar la participación en los ámbitos de cohesión social y medioambiental.

En la pasada Comisión, el Concejal Delegado reconoció que se había producido la situación denunciada por la Asociación de Vecinos de Ulía, y que estaban trabajando en conjunto con ellos -con quienes ya se habían reunido-, además de con Protección Civil y con la Fundación Cristina Enea para restablecer la situación y proceder a unos trabajos de mejora de las instalaciones y a la elaboración de un plan que garantice la seguridad en las visitas que se realicen a la finca. E indicó que la intención del Gobierno Municipal era que, para este mismo mes de febrero, a ser posible, pudieran realizarse los trabajos y retomarse las visitas guiadas.

Además de este importante extremo, hemos de recordar que, en esta casa, se ha debatido, en diversas ocasiones, sobre estos elementos protegidos dentro del parque, y que merecen la máxima atención de la Administración Municipal. En este sentido, y en el mes de mayo pasado, nuestro Grupo político tuvo a bien presentar una Moción de Control en este Pleno -aprobado por la mayoría del mismo- en el que se instaba al Gobierno Municipal a presentar un proyecto integral para la parcela de Viveros de Ulía que contemplara la puesta en valor de los depósitos de agua; y a recuperar dicho espacio y el resto de la parcela como espacio público para uso y disfrute de los ciudadanos.

A día de hoy, ese mandato político, asumido en mayo por el Equipo de Gobierno, no se ha concretado, y es por lo que el Grupo Popular

presenta la siguiente MOCIÓN:

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die alkateari eta gobernu taldeari ahalik eta azkarrena egin ditzatela Uliako ur biltegiak bisitatu nahi dituzten pertsonen segurtasuna bermatzeko egin beharreko lanak, biltegiek baldintza egokiak bete ditzaten.

1.- El Ayuntamiento Pleno de Donostia-San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a que, a la mayor brevedad posible, realicen las obras necesarias para garantizar la seguridad de aquellas personas que quieran visitar los Depósitos de agua de Ulía, y para que éstos reúnan las condiciones adecuadas.

2.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die alkateari eta gobernu taldeari aurkez dezatela plan bat Uliako ur biltegiak ondare elementu babestu gisa balioesteko eta gizarteratzeko, herritar guztiek gozatu ahal izan ditzaten.

2.- El Ayuntamiento Pleno de Donostia-San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a que presente un plan para poner en valor y socializar los Depósitos de agua de Ulía, como elemento patrimonial protegido y para disfrute de toda la ciudadanía.

Donostia, 2017ko otsailaren 17a

En Donostia/ San Sebastián, a 17 de Febrero de 2017

José María Murguiondo Casal,
Alderdi Popularreko zinegotzia".

José María Murguiondo Casal
Concejal del Grupo Popular".

**II.2.18. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA Taldeak egina, Uliako ur depositdeuetarako bistak direla eta.**

**II.2.18. Moción de control que presenta el Grupo IRABAZI DONOSTIA sobre las visitas a los depósitos de agua de Ulia.**

"Irabazi Donostia taldeko zinegotzi Loïc Alejandrok, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten dio azterkizun Udalbatzari. Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) 2017/02/13an ur depositutarako bisitez egindako interpelazioaren ondorio da mozioa.

"Loïc Alejandro, Concejal del Grupo Municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL PARA SU DEBATE EN EL PLENO, fruto de la interpelación sobre las visitas a los depósitos de agua en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos del 13/02/2017.

JUSTIFIKAZIOA

JUSTIFICACIÓN

Donostiako paisaian benetako harribitxia den Uliako Mintegiak parkean, inguruaz gozatzeko hainbat jarduera egiten dira, Uliako bizilagunek egiten duten ahalegin kolektiboari esker, nagusiki. Parke bizi horren barruan gozamenerako altxorrak daude. Horien artean,

En el Parque de Viveros de Ulía, auténtica joya en el paisaje donostiarra, se viene desarrollando una serie de actividades que permiten su disfrute diario desde hace un tiempo, gracias fundamentalmente al esfuerzo colectivo que los y las vecinas de Ulia desarrollan en él. Dentro de este parque vivo de

ur biltegiak nabarmentzen dira. Duela lau urtetik hona, horien artetik, Buskando da herritarrei erakusten zaiena, hartaz gozatzeko. Ez dugu ahaztu behar, EAEko eta Europako beste hiri batzuetan ere era horretako biltegiak herritarrentzat berreskuratu direla eta, hala, erabilgarritasun soziala eta kolektiboa eman zaizkiela.

Une hauetan, Uliako Lore Baratzak ekimenaren barruan, ahalegin komunitario eta kolektiboari esker, bisitak antolatzen dituzte gure hiriko historia biziaren harribitxi hau ezagutzeko. Arrakasta handiko bisitak dira, gainera; izan ere, izena emateko epea irekitzen den bakoitzean, handik ordu gutxira agortzen dira plazak.

Uliako Lore Baratzak ekimenekoek urtarrilaren 29an, igandean, egiteko antolatuta zuten bisitaren kasuan, ordea, Udalak baimena ukatu die, 48 ordu lehenago baino ez, eskaera zuela aste batzuk egin bazuten ere.

Zinegotzi ordezkariak Batzordean azaldu bezala, ukoa eman zieten parkean egoten zen udal langilea erretiratu berritan zegoelako, eta egoera horrek bisitak antolatzearen gaineko zalantza juridikoak sortzen zituen. Onartu zuen beranduegi adierazi zietela, eta, komentatu zigunez, barkatzeko esana zion auzo elkarteari, eta jokabide hori txalotzekoa da.

Gainera, azaldu zuenez, Cristina Enea Fundazioa lanean ari da auzo elkartearekin esparru juridiko seguru bat ezarri eta bisitaldiak egiten jarraitu ahal izateko, eta otsailean berriro bisitatzen has litezkeela.

Bestalde, gaineratu zuenaren arabera, ekintzaren bat egungo dute depositauaren segurtasuna hobetzeko, esaterako, argiztapena eta sarbidea, baina esku hartze horiek, dena dela, ez ziren bisitatzen jarraitu ahala izateko

Viveros hay distintos tesoros a disfrutar. Entre éstos, destacan los depósitos de agua. Entre los mismos, es el de Buskando aquél que se enseña desde hace varios años para el disfrute de la ciudadanía. No debemos olvidar que este tipo de depósitos en otras ciudades vascas y europeas han sido recuperados para la ciudadanía, puestos en valor, y dándoles una utilidad social y colectiva.

En estos momentos desde Uliako Lore Baratzak, con un esfuerzo voluntario y colectivo, organizan visitas periódicas a esta joya, historia viva de nuestra ciudad. Una visitas, por cierto, con un gran éxito, agotándose las plazas para las visitas en escasas horas cada vez que se abren para la inscripción.

Sin embargo, para la última visita organizada por Uliako Lore Baratzak para el domingo día 29 de enero, el Ayuntamiento ha denegado el permiso para la misma tan sólo con 48 horas de antelación, a pesar que la solicitud se cursó varias semanas antes.

En comisión, el Concejal Delegado explicó que esa denegación fue debida al hecho de que el empleado municipal que estaba en el parque se acababa de jubilar, y que esta situación provocaba incertidumbre jurídica sobre la organización de las visitas. Admitió que se avisó demasiado tarde y nos comentó que había pedido disculpas a la Asociación de Vecinos, un gesto que debemos saludar.

También explicó que la Fundación Cristina Enea trabaja con la Asociación de Vecinos para establecer un marco jurídico seguro con el fin de poder seguir con las visitas, y que estas podrían reanudarse en febrero.

Por otro lado, comentó igualmente que se van a realizar actuaciones para mejorar la seguridad en el depósito, como mejora de la iluminación y del acceso al mismo, pero que estas actuaciones no eran requisitos para poder seguir con las visitas.

ezinbesteko baldintzak.

Dena dela, auzo elkarteak adierazi digunez, udal teknikari batek ohartarazi die ezen otsailean ezingo dela berriro bisitatu, martxoan baizik. Bestalde, jakin ahal izan dugunez, ekintza horiek (argiak eta sarbidea hobetzea) legezko eskakizunak dira gune horrek bisitariak hartuko baditu. Hortaz, hasi bidez, ezingo da bisitarik izan egin beharrekoak gauzatu artean, eta hori beste arazo bat izango da bisitaldi antolatzaileentzat, eskatzaile ugari baitituzte.

No obstante, la Asociación de Vecinos nos ha comentado que un técnico del Ayuntamiento les ha advertido que las visitas no podrán hacerse de nuevo en febrero, sino más bien en marzo. También hemos podido aprender que las actuaciones (iluminación y mejora del acceso) son requisitos legales para que el espacio pueda acoger público. Con lo cual, en principio, no se podrán hacer las visitas antes de que se hagan las actuaciones previstas, un problema añadido para los organizadores de las visitas que tienen muchísima demanda para estas.

Ondo ulertzen dugu bisitak egin behar direla esparru juridiko seguru baten arabera, eta ez ditugu zalantzan jartzen xedaturiko esku hartzeak. Baina berretsi egiten dugu beharrezko izapideak egin behar direla, administrariek eta teknikariek bideratu beharreko lanak lehenbailehen amaitzeko.

Entendemos perfectamente que las visitas deban hacerse dentro de un marco jurídico seguro, y no cuestionamos las actuaciones previstas. Pero nos gustaría insistir en que se haga lo necesario para que esos trabajos administrativos y técnicos se terminen lo más pronto posible.

Azkenik, gure interpelazioan Gobernuari galdetu genion ea planen bat ote zuen deposituei balioa eransteko, baina argiak eta sarbidea hobetzeko esku hartze txikiez gain, ez genuen erantzun zehatzik jaso horren inguruan.

Para terminar, en nuestra interpelación, preguntamos si el Gobierno tenía algún plan para la puesta en valor de los depósitos, pero más allá de las pequeñas mejoras en iluminación y acceso, no tuvimos respuesta concreta sobre este aspecto.

Hortaz, hona hemen gure

Por estos motivos planteamos la siguiente:

KONTROL MOZIOA

1. Hertsatuki eskatzen dio Donostiako Udalbatzak Gobernu taldeari lan juridiko, administratibo eta teknikoak azkartzea, Uliako Auzo Elkarteak berriro ekiteko ur depositu zaharretarako bisitaldiei, bien bitartean, bisitaldietan udal langileak izango direla bermatuta.
2. Hertsatuki eskatzen dio Donostiako Udalbatzak Gobernu taldeari Uliako ur deposituei balioa eransteko plan proposamen bat prestatu eta, sei hilabete barru, aurkeztea.

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al equipo de gobierno a acelerar los trabajos jurídicos, administrativos y técnicos que permitan a la Asociación de Vecinos de Ulia reanudar las visitas a los antiguos depósitos de agua, garantizando mientras tanto la presencia de personal municipal durante las citadas visitas.
2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al equipo de gobierno a preparar y presentar públicamente, en un plazo de 6 meses, una propuesta de Plan de puesta en valor de los depósitos de agua de Ulia.

Donostian, 2017ko otsailaren 17an

Sinatua: Loïc Alejandro,
Irabazi Donostia taldeko zinegotzia.".

Donostia a 17 de Febrero de 2017

Fdo. Loïc Alejandro
Concejal del Grupo Irabazi Donostia".

**II.2.31. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, Uliako ur biltegietara bisita dela eta.**

"Naiara Sampedro Perezek EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2017eko otsailaren 13an Gune Publiko, Obra eta Hiri Zerbitzuetako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Uliako Soroborda ur-biltegia Donostian eraikitako lehen ur-biltegia da. 1869an hasi zen erabiltzen, 1982ra arte. Egun ez da erabiltzen, baina Soroborda eta ondoko Buskando biltegia kontserbazio egoera onean daude.

Lau urtez, Uliako Auzo Elkarteko kideak, beraien borondatez, ur deposituetan antolatutako bisitaldien bitartez, Donostiako historiaren zati eta ondare honen berri eman dute.

Uliako Auzo Elkarteak urtarrilaren 29rako -igandea- ur biltegietan antolatutako bisitaldiak beteta zituela (90 lagun izena emanda), ostiralez bisita egiteko baimena ukatu zitzaien.

Baimena ukatzearen arrazoia segurtasun neurriak ez betetzea eta bisitaldiaren ardurak

**II.2.31. Moción de control que presenta el Grupo EH BILDU sobre la visita a los depósitos de agua de Ulia.**

"Naiara Sampedro Pérez, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, somete la siguiente moción a la consideración del Ayuntamiento Pleno. La presente moción trae causa de la interpelación tratada en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos el 13 de febrero de 2017.

JUSTIFICACIÓN

El depósito de agua Soroborda de Ulia es el primer depósito de agua construido en San Sebastián. Se comenzó a utilizar en 1869, hasta 1982. Actualmente carece de uso, pero tanto Soroborda como el depósito de Buskando, adyacente, se encuentran en un buen estado de conservación.

A lo largo de cuatro años, personas de la asociación de vecinas y vecinos de Ulia, mediante las visitas organizadas a los depósitos de agua, han difundido una parte de la historia de San Sebastián y han dado a conocer ese elemento del patrimonio.

Cuando la asociación de vecinas y vecinos de Ulia tenía completa la visita organizada a los depósitos de agua (se habían inscrito 90 personas) para el 29 de enero —domingo—, el viernes se les negó el permiso para realizar la visita.

La razón de negar el permiso ha sido el incumplimiento de las medidas de seguridad y no

zehaztuta ez egotea izan da.

Otsaileko Gune Publiko, Obra eta Hiri Zerbitzuetako Batzordean, udal talde politiko guztion intereseko ekimena dela argi geratu zenez eta Udal Gobernuaren azalpenak nahikoa argiak izan ez zirenez, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkezten duen

KONTROL MOZIOA:

1.- Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari, Uliako Auzo Elkartearekin eta Uliako Lore Baratzak taldearekin elkarlanean, martxoaren 26rako eta ondorengo hilabeteetako azken igandeetarako aurreikusita dauden ur biltegietarako bisitak bermatzeko beharrezkoak diren baliabideak aztertzea eta martxan jartzea.

Donostian, 2017ko otsailaren 17an

Naiara Sampedro Perez
EHBilduko Zinegotzia".

concretar de las responsabilidades de la visita.

En la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, como quedó patente que era considerada una iniciativa de interés por parte de todos los grupos políticos y dado que las explicaciones del Gobierno municipal no eran suficientemente claras, la concejala que suscribe presenta la siguiente

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Ayuntamiento Pleno insta la Gobierno municipal a que, en colaboración con la asociación vecinal de Ulia y con el grupo Uliako Lore Baratzak, analice los medios precisos para garantizar las visitas a los depósitos de agua previstas para el 26 de marzo y para los últimos domingos de los siguientes meses y se pongan en marcha.

En San Sebastián, a 17 de febrero de 2017

Naiara Sampedro Perez,
concejala de EH Bildu".

Eztabaida hasita, Loïc Alejandro jaunak, Jose Maria Murguiondo Casal jaunak, Naiara Sampedro Perez andreak eta Alfonso Gurpegui Ruiz jaunak parte hartu dute puntu hauetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en estos puntos los/la señores/a D. Loïc Alejandro, D. José María Murguiondo Casal, Dª. Naiara Sampedro Perez y D. Alfonso Gurpegui Ruiz, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**12. KONTROL MOZIOAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 12:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

**18. KONTROL MOZIOAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 18:**

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**18. KONTROL MOZIOAREN 1.GO PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 18:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 13 – (6) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 13 – (6) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0**

**18. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 18:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

**31. KONTROL MOZIOAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 31:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.11. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, Astiñene baserrian konponketa-lan batzuk egiteko aginduaren exekuzio subsidiarioa dela-eta .**

**II.2.13. Moción de control que presenta el Grupo EH BILDU sobre la ejecución subsidiaria de la orden de ejecución de distintas reparaciones en el caserío Astiñene.**

“Ricardo Burutaran Ferré EH Bildu udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoko 98. artikulua oinarri, honako KONTROL MOZIOA aurkezten du, Astiñene baserrian konponketa-lan batzuk egiteko aginduaren exekuzio subsidiarioa dela-eta, Udalbatzan azter dadin. Mozioa joan den maiatzaren 16an Lurralde Garapen eta Planifikazio Batzordean aurkeztutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Hirigintza Ondare Eraikia Babesteko Plan Bereziak, 2014ko otsailaren 27an onartuak, “C” babes-mailarekin babestu beharreko eraikintzat jo zuen Astiñene baserria. Aurreko legealdian, baserria guztiz abandonatuta zegoela eta lehenbailehen esku hartu behar zela ikusita, bi neurri abian jarri ziren, eraitsi behar ez izateko.

Batetik, exekuzio-agindu bat, bete ezean subsidiarioki exekutarazi ahal izango zena. Horretaz gain, eraikina finkatzeko egin beharreko lanei buruzko azterlana idazteko agindua ere eman zen. Azterlan hori entregatu zen, eta Udalaren eskuetan dago.

Bestetik, aurrekontuen zirriborroan kontu-sail bat jaso zen, baserria eskuratzen saiatzeko. Oraingo legealdian, zoritxarrez, behin betiko onartutako aurrekontuetan ez da jaso baserria erosteko aukera ematen duen kontu-sailik.

2015eko urrian, baserriaren egoeraz galdetu genuen, baina, ia zazpi hilabete iragan badira ere, agindutako konponketak ez dira subsidiarioki exekutatu. Bitartean, baserria, hiriko ondare historiko-artistikoa, hondatzen ari da eta, zaindu beharreko ondarezko balio garrantzitsu hori galdu ez dadin, agindu bai, baina oraindik egin gabe dauden lanak presaz

“Ricardo Burutaran Ferré, concejal del grupo municipal de EH BIDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico de Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL para ser tratada en Pleno sobre la ejecución subsidiaria de la Orden de Ejecución de distintas reparaciones en el caserío Astiñene. La moción es consecuencia de la interpelación sustanciada en Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio el pasado 16 de mayo.

JUSTIFICACIÓN

El Plan Especial de Protección del Patrimonio Urbanístico Construido, aprobado el 27 de febrero de 2014, incluyó entre los edificios a proteger con el grado “C” el caserío Astiñene. En la anterior legislatura, y ante el absoluto estado de abandono del mismo y la necesidad urgente de intervención, de cara a evitar su destrucción, se pusieron en marcha dos medidas.

Por un lado, una orden de ejecución, que permitiese, en caso de incumplimiento, instar la ejecución subsidiaria; llegando a encargar la redacción del estudio sobre las obras a acometer en el mismo para asegurar la citada edificación. Dicho estudio fue entregado y obra en poder del Ayuntamiento.

Por otro, se incluyó una partida en el borrador de presupuestos de cara a intentar la adquisición del mismo. En la actual legislatura, lamentablemente, no se ha reflejado en los presupuestos definitivamente aprobados una partida que permita la adquisición de este caserío.

Ya en el mes de octubre de 2015 preguntamos por la situación del mismo, pero lo cierto es que, aunque han pasado casi 7 meses, no se han ejecutado de manera subsidiaria las reparaciones ordenadas. El caserío, patrimonio histórico-artístico de la ciudad, sigue deteriorándose, y es urgente la ejecución de las obras ordenadas y no ejecutadas, para evitar la desaparición de este

egin behar dira.

Hirigintza Sostengagarriko eta Hiri Proiektuetako ordezkariak, 2016ko maiatzean egin genion interpelazioari erantzunez, esan zigun epe desberdinak ezarri zirela konponketa-lan desberdinak egiteko. Hala, presazkotzat jotako esku-hartzeetarako –barrualdean eskorak jartzea, datuak hartzea, egitura konpontzeko proiektu teknikoa egitea, leihoak ixtea, teilatuko egituran egin beharreko konponketak egitea, barrualdea konpontzea eta hainbat elementu hustea–, hamabi hilabeteko epea ezarri zen. Begien bistakoa denez, exekuzio-agindua ez da bete eta baserriaren hondatzeak aurrera jarraitzen du.

Hori dela-eta, beharrezko eta presazkoa da Udalak abian jartzea legezko mekanismo guztiak emandako exekuzio-agindua betetze dadin eta, bete ezean, exekuzio subsidiarioari ekitea.

Horiek horrela direla, behean sinatzen duen zinegotziak honako KONTROL MOZIOA aurkezten du:

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio gobernu taldeari, Astiñene baserrian konponketa-lan batzuk egiteko emandako exekuzio-agindua betetzeko epea iragan eta agindua bete ez denez, exekuzio subsidiarioa abian jartzeko, luzamendutan ibili gabe.

2.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio gobernu taldeari erne egoteko eta begiratzeko ea exekuzio-agindu horretan jasotako gainerako esku-hartzeak egiten diren eta, emandako epeetan jabeek egiten ez badituzte, subsidiarioki exekutatzeko beharrezko izapideei ekiteko.

importante valor patrimonial a preservar.

Interpelado nuevamente el delegado de Urbanismo Sostenible y Proyectos de Ciudad el pasado mes de mayo de 2016 nos contestó que se habían señalada distintas plazos para la ejecución de distintas reparaciones: para las actuaciones calificadas como urgentes -consistentes, entre otras, en la instalación de apeos en el interior, la toma da datos, la redacción de un proyecto técnico de reparación estructural, el cierre de ventanas, las reparaciones estructurales en cubierta y la limpieza en el interior y el vaciado de algunos elementos- se fijó un plazo de 12 meses. Así, mientras la orden de ejecución ha sido incumplida, el estado de dicho caserío continúa su progresivo deterioro.

Por eso, es urgente y preciso que el Ayuntamiento ponga en marcha todos los mecanismos legales para conseguir el efectivo cumplimiento de la orden de ejecución dictada, y que, ante el incumplimiento de la misma, inicie la ejecución subsidiaria correspondiente.

A la vista de todo ello, el concejal que suscribe formula la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al equipo de gobierno a que, ante el incumplimiento de la orden de ejecución dada para la realización de determinadas obras de reparación en el caserio Astiñene y cuyo plazo ya ha vencido, ponga en marcha sin dilaciones la ejecución subsidiaria de las mismas.

2.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al equipo de gobierno a adoptar una actitud vigilante en la exigencia del cumplimiento de las demás actuaciones de reparación ordenadas en la citada orden de ejecución; y a iniciar los trámites necesarios para la ejecución subsidiaria de la misma, en caso de que se verifique su incumplimiento por parte de la propiedad en los

plazos marcados.

Donostian, 2017ko otsailaren 17an

Izpta: Ricardo Burutaran Ferré
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

En Donostia a 17 de febrero de 2017

Sin: Ricardo Burutaran Ferré
Concejal del Grupo Municipal de EH BILDU".

Ricardo Burutaran Ferre jaunak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto el señor D. Ricardo Burutarán Ferré, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.14. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, HOEBPB aldatzeko proposamenei, arrazoituta eta zentzuzko epe baten barruan, espresuki erantzuteko betebeharra ez betetzearen inguruan.**

"EH Bildu udal taldeko zinegotzi Ricardo Burutaran Ferrek, Udalbatzaren Araudi Organikoko 98. artikuluan oinarrituta, KONTROL MOZIO hau aurkezten dio azterkizun Udalbatzari, HOEBPB aldatzeko proposamenei, arrazoituta eta ZENTZUKO epe baten barruan, espresuki erantzuteko betebeharra ez betetzearen inguruan. Interpelazioa mozio baten ondorio da, joan den otsailaren 13an Lurralde Garapen eta Planifikazio Batzordean egindakoarena.

JUSTIFIKAZIOA

Herritarren parte hartzea, hartutako erabakien

**II.2.14. Moción de control que presenta el Grupo EH BILDU sobre el incumplimiento de la obligación de responder expresamente, de manera motivada y dentro de un plazo razonable, a las propuestas de modificación de PEPPUC.**

"Ricardo Burutaran Ferré, concejal del grupo municipal de EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico de Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL para ser tratada en Pleno sobre el incumplimiento de la obligación de responder expresamente, de manera motivada y dentro de un plazo razonable, a las propuestas de modificación del PEPPUC. La moción es consecuencia de la interpelación sustanciada en la Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio el pasado 13 de febrero.

JUSTIFICACIÓN

Dentro de las normativas aprobadas al objeto de

gaineko kontrol publikoa eta erabakiak hartzeko edo onartzeko arrazoietan gardentasuna sustatzeko onartu diren araudien arabera, herritarrek —pertsona fisikoak eta juridikoak— eskubidea dute, interesgarritzat jotzen dituzten gaiei buruzko proposamenak edo eskaerak egiteko administrazio publikoei.

fomentar la participación ciudadana, el control público de las decisiones adoptadas, así como la total transparencia en los motivos que les llevaron a adoptar o aprobar las mismas, está el derecho que asiste a la ciudadanía, personas físicas y jurídicas, para formular propuestas o solicitudes a las administraciones públicas sobre cuestiones que entiendan interesantes.

Herritarren eskubide horrek legezko betebeharra dakar administrazioentzat, hala nola Udalarentzat. Legezko betebeharra dago egindako proposamenei erantzuteko eta, gainera, arrazoituta eta arrazoizko epean egiteko.

El derecho que asiste a la ciudadanía implica una obligación legal para las administraciones, entra las que está el Ayuntamiento: la obligación legal de contestar a las propuestas realizadas o formuladas, de hacerlo además de manera razonada y en un plazo razonable.

Bada, jakin dugu nola aurkeztu zituzten HOEBPB aldatzeko hainbat proposamen baina Udalak ez zuela erantzuteko betebeharra bete, ezta era arrazoituan erantzutekoa ere.

Pues bien, hemos podido tener conocimiento de cómo se presentaron distintas propuestas de modificación del PEPPUC, sin que por parte del Ayuntamiento se cumpliera con la obligación de contestar a las mismas, ni de hacerlo de una manera razonada.

Begien bistakoa da kasu horretan ere Udalak ez duela legezko betebeharra bete. Ondorioz, herritarren artean ez da indartzen Udalak gardentasunez jarduten duelako ideia, herritarrek aurkezturiko proposamenak aztertzeko eta arrazoizko epean eta modu arrazoituan erantzuteko betebeharra kontuan hartuta.

Es evidente que el Ayuntamiento no ha cumplido, tampoco en ésta ocasión, con su obligación legal; y que tal hecho no refuerza la idea en la ciudadanía, de que el Ayuntamiento actúa con transparencia, cumpliendo con la obligación que tiene de estudiar las propuestas presentadas por la ciudadanía, y de contestarlas, en un plazo razonable, y de manera razonada.

Horren harira, duela gutxi jakin dugunez, Arartekoak Udalari "kargu hartu" edo gogorarazi dio ez duela bete Hirigintza Ondare Eraikia Babesteko Plan Berezia aldatzeko proposamenei —arrazoituta eta zentzuzko epe batean— espresuki erantzuteko betebeharra.

Ante ello, hemos podido conocer recientemente, como el Ararteko “amonesta” o recuerda al Ayuntamiento que no ha cumplido con la obligación de responder expresamente- de manera motivada y dentro de un plazo razonable- a las propuestas de modificación del Plan Especial para la Protección del Patrimonio.

Udal Gobernuari horren inguruan galdetu eta erantzun zigunez, haren ustez auzia konponduta zegoen Hirigintza Ondare Eraikia Babesteko Plan Berezia eguneratzeko lanak agindu izanarekin. Halere, ezin onartuzkoa da azalpen

Interpelado al respecto el Gobierno Municipal nos contestó que entendía resuelta la cuestión con el encargo de los trabajos de revisión del PEPPUC. Sin embargo, tal explicación no es admisible.

hori.

Izan ere, Hirigintza Sostengagarriko eta Hiri Proiektuetako zinegotzi ordezkariak azaldutakoak ez du inolako babes zuribiderik arauan. Baina, gainera, ez dute egin inolako gogoetarik edo analisirik Áncora plataforma zibikoak Hirigintza Ondare Eraikia Babesteko Plan Berezia sartzeko eskaturiko 3 eraikinetako bakar batez ere. Arartekok dioenez, horrek ez du betetzen udalaren legezko betebeharra, hau da, egiten dizkioten aldaketa eskaerei arrazoizko epe batean modu funtsatuan erantzutea.

Hori guztia kontuan, zinegotzi izenpetzaile honek honako KONTROL MOZIO hau egiten dut:

1. Hertsatuki eskatzen dio Donostiako Udalbatzak Gobernu taldeari arrazoizko epe batean modu funtsatuan erantzutea nahiz Áncora plataforma zibikoak nahiz beste pertsona fisiko edo juridikoek Hirigintza Ondare Eraikia Babesteko Plan Berezia aldatzeko eginiko proposamenei.

2. Hertsatuki eskatzen dio Donostiako Udalbatzak Gobernu taldeari herritarrek legezko prozeduretatik eginiko eskaerei behar bezala eta modu egokian tratatzea.

Donostian, 2017ko otsailaren 17an

Sin: Ricardo Burutaran Ferré,
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Efectivamente, la explicación dada por el delegado de Urbanismo Sostenible y Proyectos de Ciudad no encuentra amparo justificativo alguno en la norma. Pero es que, además, ninguna reflexión o análisis se ha hecho de ninguno de los 3 edificios sobre los que la plataforma cívica Áncora solicitó su inclusión en el PEPPUC. Esto incumple, como dice el Ararteko, con la obligación legal que tiene el Ayuntamiento de contestar de manera razonada, y en un tiempo razonable, las propuestas de modificación que se realicen.

A la vista de todo ello, el concejal que suscribe presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al equipo de gobierno a que cumpla con la obligación de responder expresamente de manera motivada, y dentro de un plazo razonable, a cuantas propuestas de modificación del PEPPUC se hayan realizado por la Plataforma Cívica Áncora o por otras personas físicas o jurídicas.

2.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al equipo de gobierno a dar el respeto debido y el tratamiento adecuado a las peticiones que, por el procedimiento legalmente establecido, se realizan por parte de la ciudadanía.

En Donostia, a 17 de febrero de 2017

Sin: Ricardo Burutaran Ferré
Concejal del grupo municipal EH BILDU".

Eztabaida hasita, Ricardo Burutaran Ferre jaunak, Loïc Alejandro jaunak, Miren Albistur Garmendia andreak eta Enrique Ramos Vispo jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Ricardo Burutarán Ferré, D. Loïc Alejandro, Dª. Miren Albistur Garmendia y D. Enrique Ramos Vispo, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.15. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak egina, amiantoarekin erlazioa duten eskaerak erantzutearen ingurukoa.**

“Olaia Duarte Lopez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016ko otsailaren 13an Lurralde Garapen eta Planifikazio Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Aurreko legealdian, amiantoaren arazoari buruzko bide bat lantzen hasi zen Udala, eta beharrezkotzat jo zuen amiantoa agertzen denean Udalak nola jarduten duen eta zer protokolo dituen aztertzea eta berrikustea. Orobat, ezinbestekotzat jo zen, departamentuen eta beste batzuen artean, gure hirian amiantoa duten eraikinen edo higiezinen mapa edo errolda bat egitea; horretarako, hori prestatzeko aurretiazko lanak egiten hasi ziren.

Bide honi jarraituz, 2016ko apirileko udalbatzarrean aho batez onartua izan zen Kontrol Mozio bat aurkeztu genuen, ondorengoa eskatuz:

Gure hirian amiantoa duten eraikin edo higiezinen errolda edo mapa bat egitea.

**II.2.15. Moción de control que presenta el Grupo EH BILDU sobre las respuestas a las solicitudes relacionadas con el amianto.**

“Olaia Duarte López, concejala del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción para que sea tratada en el Pleno. La moción es consecuencia de la interpelación substanciada el 13 de febrero de 2017 en la Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio.

JUSTIFICACIÓN

En la legislatura anterior, el Ayuntamiento empezó a ocuparse del problema del amianto, y consideró necesario analizar y revisar su forma de actuar ante la presencia de esta sustancia, así como los protocolos de actuación establecidos para ello. Asimismo, se consideró fundamental elaborar, entre los departamentos municipales y otros agentes, un mapa o censo de los edificios o inmuebles afectados por amianto en nuestra ciudad y se iniciaron los trabajos previos necesarios.

En esta línea, presentamos una moción de control, que fue aprobada por unanimidad en la sesión plenaria celebrada en abril de 2016, solicitando lo siguiente:

La elaboración de un censo o mapa de edificios o inmuebles que contengan amianto en nuestra ciudad.

Amiantoaren eraginpean egoteak osasunerako izan ditzakeen arriskuen edo eraginen inguruan informatzeko eta prestatzeko amiantoa duten eraikinetan edo instalazioetan jardun behar duten udal langileak.

La implementación de medidas de información y formación del personal municipal que en su quehacer profesional tenga que enfrentarse a edificios o instalaciones con amianto sobre los riesgos o afecciones que el amianto supone para la salud.

Udal eraikin edo lursailetan dagoen amiantoa deuseztatzeko eta kentzeko programa bat prestatzea, lehentasuna emanda egoerarik okerrenean daudenei edo bizitza erabilgarria amaitua dutela ezagun dutenei.

La elaboración de un programa de erradicación y retirada del amianto presente en edificaciones o parcelas municipales, priorizando aquel que se encuentre en peor estado o que haya dado muestras de finalización de su vida útil.

Herritarrak amiantoa deuseztatzearen eta jarraibideak betetzearen komenigarritasunaz sentsibilizatzea.

La sensibilización de la población sobre la conveniencia de la eliminación del amianto y de las pautas a seguir.

Hain zuzen ere, laugarren puntuan aipatzen den herritarren sentsibilizazioari dagokionez, oso garrantzitsua da ASVIAMIE elkarteak egiten duen lana. Esate baterako, uztailaren 6an Bera Bera pasealekuko 88. zenbakian bizi den emakume batek EH Bildu udal taldeari deitu zion, ASVIAMIE elkartekoek Udalarekin harremanetan jartzea gomendatu ziotelako.

Precisamente, en esa labor de sensibilizar a la ciudadanía, que se solicita en el cuarto punto, es muy importante el trabajo que desempeña la asociación ASVIAMIE. Prueba de ello es que, el 6 de julio, una mujer residente en el número 88 del paseo de Berabera llamó al grupo municipal EH Bildu para informarle de que la asociación ASVIAMIE le había aconsejado que se pusiera en contacto con el Ayuntamiento.

ikertzen ari zen gertakari larri batzuen aurrean. Izan ere, Animaliak Babesteko Gipuzkoako Elkartean egindako jarduera ustez irregular batzuek salatzen ziren, delitu izan zitezkeenak.

Duela ia urtebete, gai hau mahai gainean jarri genuenean, zinegotzi ordezkariak garrantzia kendu zion salaketari eta adierazi zuen fiskalak ere ez ziola kasurik egin auziari, eta kontratua bereganatu nahi zuen interesatu batek jarri duela salaketa. Haren jardun guztian elkartearen lana defendatu besterik ez zuen egin. Hala ere, adierazi zuen ikusiz gero ez zutela betekizunen bat betetzen, bidezko ziren neurriak hartuko zituztela.

Duela egun batzuk, kasuaren instrukzioa amaitu da, auto batez, zeinean gertakarien xehetasunak ematen baitira. Bi albaitariei deklarazioa hartu eta zenbait diligentzia egin eta gero, kasuaren instrukzioa egin duen epaitegiak irizten dio gertakariak etxe-abereen aurkako delitua izan daitezkeela eta horregatik zigor arloko epaitegian epaituko dituztela. Bi akusatuek apelazioa aurkeztu dute Gipuzkoako Auzitegian, baina auzitegiak atzera bota du eta Instrukzioko Epaitegiaren autoa berretsi du.

Horiek horrela, kasuaren instrukzioaren aurrean gure taldeak duen kezka adierazi genuen batzordean hil honetan. Zinegotzi ordezkariak esan zuen Udalak Elkartean egindako ikuskapenek ez dutela kontratu urratzerik jarri agerian, eta gobernuak ez zuela, beraz, jarduteko asmorik.

Elkartearekin sinatutako kontratuaren baldintza teknikoen agiriak hau xedatzen du: “Eutanasia behar bezala egiaztatu beharko da eta animalien babes eta ingurumen sanidadearen alorreko araudien arabera egingo da”. Agiri berean esaten da, halaber, kontratua desegiteko arrazoitzat hauek joko direla:

denunciados tres años antes y que la Ertzaintza estaba investigando. Estos hechos podían ser constitutivos de un delito y constituían posibles actuaciones irregulares en la Sociedad Protectora de Animales y Plantas de Gipuzkoa (SPAPG).

Cuando pusimos este asunto sobre la mesa hace casi un año, el Concejal Delegado minimizó la denuncia alegando que “el Fiscal no había hecho ni caso a esta situación” y que la denuncia provenía de una parte “interesada” en “hacerse con la contrata”. Su intervención consistió en defender la labor realizada por la SPAPG. No obstante declaró también que “en el momento que se viera que hay un incumplimiento se tomarían las medidas idóneas”.

Hace unos días, ha finalizado la instrucción del caso con un auto donde se detallan tales actuaciones. Tras la toma de declaraciones a los dos veterinarios y practicar distintas diligencias, el juzgado que ha instruido el caso considera que los hechos aparentemente podrían ser constitutivos de un delito contra animales domésticos y por ello van a ser juzgados en un juzgado de lo penal. Los dos acusados han apelado ante la Audiencia de Gipuzkoa, la cual la ha rechazado y ha confirmado el auto del Juzgado de Instrucción.

Por este motivo trasladamos en Comisión este mes la preocupación de nuestra formación ante la instrucción del caso. El concejal delegado señaló que las inspecciones que el Ayuntamiento ha realizado en la SPAPG no han evidenciado ningún incumplimiento del contrato y que por lo tanto el Gobierno no tenía intención de actuar.

El pliego de condiciones técnicas del contrato con la SPAPG estipula lo siguiente: “La eutanasia deberá ser convenientemente acreditada y se efectuará de acuerdo a la normativa vigente relativa a la protección animal y sanidad ambiental”. El mismo documento también dice que “se considerarán causa de rescisión las siguientes:

Dagozkion baldintza teknikoen eta administrazio baldintzen agirien arabera ezarritako eta adostutako lan balditzen urratze agerikoak.

El incumplimiento manifiesto de las condiciones de trabajo establecidas y acordadas según pliegos de condiciones técnicas y administrativas correspondientes.

Baimendu gabeko produktuak edo prozedurak erabiltzea, edo osasun publikorako, ingurumenerako eta animaliaren ongizaterako modu zuhurtziagabean erabiltzea”.

El empleo de productos o procedimientos no autorizados, o su utilización de manera imprudente para la salud pública, el medio ambiente y el bienestar animal”

Bi albaitariak gertakari hauengatik daude auzipetuta, besteak beste :

Los hechos por los que se van a juzgar a dos veterinarios de la SPAPG son, entre otros:

“animalien eutanasia eta hilketa aurreikusitako albaitaritza irizpideei jarraitu gabe” eta hori, hain zuzen, zuzenean doa baldintzen agirian aipatzen den “animalien babesari buruzko araudiaren" kontra.

“la eutanasia y sacrificio de animales fuera de los criterios veterinarios previstos”, algo que va directamente en contra de la “norma vigente relativa a la protección animal” a la que hace referencia el pliego;

“inongo arrazoirik gabe, ostiko handiak” ematea bezalako jarduera bat, ez da justu-justu baldintzen agirian ezarritako “animaliaren ongizaterako prozedura zuhurra”.

actuaciones como “fuertes patadas sin motivo aparente”, no son precisamente un “procedimiento prudente para el bienestar animal” requerido por el pliego.

2016an, Udalak sei bisita egin zituen Elkartera. Hau da, bi hilean behin. Maiztasun txikia dela alde batera utzita, nahiko nabarmena da bisita bitartean albaitariek (auzipetuek) ez zituztela abusuzko eutanasiak egingo edo ostikada handiak emango Udaleko ikuskarien begien aurrean. Horiek horrela, bisita horietan arau-hausterik egiaztatu ez dela ontzat ematea bakuntasun gutxienez bitxia erakustea da.

En 2016, el Ayuntamiento realizó 6 visitas a las SPAG. Es decir una cada 2 meses. A parte de la poca frecuencia de esas visitas, es bastante evidente que en esas visitas el personal veterinario (el que será juzgado) no iba a realizar eutanasias abusivas o dar fuertes patadas a los animales delante de los ojos de los y las inspectoras del Ayuntamiento. Con lo cual dar por valido el hecho de que no se ha constatado incumplimientos en esas visitas es hacer prueba de una ingenuidad por lo menos peculiar.

Baina are gehiago. Bi albaitari horiek zigor bidetik epaituko dituzten honetan –kontratuaren baldintzak bete ez direla susmo handia hartzekoa dena–, kontratu urraketarik ez dela egiaztatu irizten jarraitzen du.

Pero es más. Ahora, que se va a juzgar a esos dos veterinarios en lo penal, lo cual constituye una sospecha importante de incumplimiento de los términos del contrato con la SPAPG, el Gobierno sigue considerando que no se ha constatado incumplimiento del contrato.

Aurreko batean eskatu genion Udalari akusazio partikular gisa agertzeko zuzeneko informazioa

Ya pedimos en una ocasión anterior que el Ayuntamiento se persone como acusación

edukitzearren. Ulertzen dugu ordu hartan gobernuak eskaera atzera botatzea gaiaren inguruan nolabaiteko ziurgabetasuna ikusteagatik. Baina gaur egoera beste bat da. Animaliak Babesteko Gipuzkoako Elkarteko – Udalari zerbitzua baldintza jakin batzuen arabera emateaz arduratzen den elkarte bateko– bi langile epaituko dituzte animaliei tratu txarrak emateagatik. Zalantzak tokirik ez du, eta uste dugu Udalak jardun egin behar duela.

particular con el fin de obtener información de primera mano. Podemos entender que en aquel tiempo el Gobierno rechazó esa petición por ver una cierta incertidumbre alrededor del asunto. Pero hoy la situación es distinta. Dos personas empleadas de la SPAPG, entidad encargada de realizar una prestación al Ayuntamiento según ciertas condiciones, van a ser juzgadas por maltrato animal. No cabe incertidumbre y creemos que el Ayuntamiento debe actuar.

Bi albaitariak erruduntzat joko balituzte, kontratu urraketa agerikoa litzateke, eta kontratua deuseztatu egin beharko da. Hori horrela, prozedurak aurreikusi beharko dira kaleko animaliak bildu eta kontrolatzeko lizitazio berri bat burutu bitartean.

En caso de que se determine la culpabilidad de los dos veterinarios, el incumplimiento del contrato será manifiesto y será necesario rescindir el contrato. Es por lo tanto necesario prever procedimientos para la recogida y el control de animales vagabundos hasta que se haga eventualmente una nueva licitación.

Horiek guztiak horrela, hau da gure

Por todos esos motivos presentamos la siguiente:

KONTROL MOZIOA

MOCIÓN DE CONTROL

1. Donostiako Udalbatzak gobernu taldeari eskatzen dio egin ditzala behar diren gestioak akusazio partikular gisara espedientera gehitzeko, era horretara, inguruabarren eta gertakarien, eta hortik eratorritako erantzukizunen zuzeneko ezagutza izateko.

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al equipo de gobierno a realizar las gestiones oportunas para que el Ayuntamiento se incorpore al expediente como acusación particular a los efectos de conocer de primera mano las circunstancias y hechos acaecidos, y las responsabilidades que de ello se deriven.

2. Donostiako Udalbatzak gobernu taldeari eskatzen dio ikuskaritzak hobe ditzala, animalien egonaldia baldintzarik onenetan burutzea bermatzeko.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al equipo de gobierno a mejorar las inspecciones en la protectora de animales al objeto de garantizar la estancia de los animales en condiciones óptimas.

3. Donostiako Udalbatzak gobernu taldeari eskatzen dio aurreikus ditzala ordezko neurriak, animalien aldeko hiriko elkarteen laguntzarekin, kaleko animaliak biltzeko eta kontrolatzeko zerbitzua bermatzeko, Animaliak Babesteko Gipuzkoako Elkartearekin sinatutako kontratua ezabatu beharko balitz ere.

3. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al equipo de gobierno a prever soluciones alternativas, con la ayuda de las asociaciones animalistas de la ciudad, para asegurar un servicio de recogida y control de los animales vagabundos, en caso de tener que rescindir el contrato con la Sociedad Protectora de Animales y Plantas de Gipuzkoa.

Izpta.: Loïc Alejandro,
Irabazi Donostia taldeko zinegotzia”.

Fdo. Loïc Alejandro
Concejal del Grupo Irabazi Donostia”.

Eztabaida hasita, Loïc Alejandro jaunak, Jose Luis Arrue Pinto jaunak, Axier Jaka Goikoetxea jaunak eta Miguel Angel Diez Bustos jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. Loïc Alejandro, D. José Luis Arrúe Pintó, D. Axier Jaka Goikoetxea y D. Miguel Ángel Díez Bustos, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**22. KONTROL MOZIOAREN 1.GO PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 22:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 13 – (7) EAJ-PNV, (6) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 9 – (6) EH BILDU (3) PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 13 – (7) EAJ-PNV, (6) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 9 – (6) EH BILDU (3) PP.**

**22. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 22:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

**22. KONTROL MOZIOAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 22:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2)**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2)**

**IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 13 – (7) EAJ-PNV, (6) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 3 – PP.**

**IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 13 – (7) EAJ-PNV, (6) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 3 – PP.**

---------------

**II.2.24. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA taldeak aurkeztua, edateko ura eramateko fibrozementuzko (amianto) hodiei buruzkoa.**

“Irabazi Donostia taldeko zinegotzi Loïc Alejandrok, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi du. Mozioa Lurraldearen Garapen eta Planifikazio Batzordean, 2017/02/13an aurkeztutako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Ur sareetan amianto zuntzez eta zementuz eginiko hoditeriak erabiltzea berrogeiko hamarkadan orokortu zen Espainian eta Europan. Zementugintzaren eta eraikuntza sektorearen gorakada ekonomikoaren adierazpena izan zen. Europako 1999/77/CE Direktibak, uztailaren 26koak, mugak jarri zizkion amiantoa bezalako substantziak, eta hedaduraz fibrozementua, erabiltzeari eta merkaturatzeari. 2001eko abenduaren 7ko Aginduaren bidez, Espainiak 1999/77/CE Europako Zuzentaraua, edozein eratako amiantoa eta amiantoa duten produktuak erabiltzea eta merkaturatzea debekatzen duena, ezarri zuen.

2003az geroztik, 2003/18/CE Europako zuzentarauak guztiz debekatzen ditu, erabilerari zein merkaturatzeari dagokienez, eta beste material batzuekin ordezkatzea ezartzen da, denboraren poderioko arriskugarritasunagatik. Egiaztapen horien aurrean, herrialde garatuek

**II.2.24. Moción de control que presenta el Grupo IRABAZI DONOSTIA sobre conducciones de agua potable de fibrocemento (amianto).**

“Loïc Alejandro, Concejal del Grupo Municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL PARA SU DEBATE EN EL PLENO, fruto de la interpelación sobre las conducciones de agua potable de la ciudad en la Comisión de Desarrollo y Planificación del territorio del 13/02/2017.

JUSTIFICACIÓN

Las tuberías de fibrocemento a base de fibras de amianto y cemento se generalizaron en las redes de agua en España y Europa desde los años 40. En nuestro país es la expresión del auge económico de la industria cementera y del sector de la construcción. La Directiva Europea 1999/77 de 26 de julio de 1999 ya limitaba el uso y comercialización de sustancias como el amianto y por extensión fibrocemento de las tuberías. A través de la Orden de 7 de diciembre de 2001, España transpuso la Directiva Comunitaria 1999/77/CE, por la que se prohíbe el uso y comercialización de todo tipo de amianto y de los productos que lo contengan.

Desde 2003 están totalmente prohibidas tanto en usos como en comercialización por la directiva europea 2003/18/CE y se marca su sustitución por otros materiales dada su potencial peligrosidad en el tiempo. Ante estas constataciones los países desarrollados fueron prohibiendo paulatinamente

amiantoaren eta amiantotik eratorritako gaien erabilera arian-arian debekatzen joan ziren. Espainian, amiantoa erabiltzea 2001ean debekatu zen (2001eko abenduaren 7ko Ministro Agindua) Europar Batasunak jarritako 2005 urtea arteko gehieneko epeari aurrea hartuta. Erabilera hain hedatuta zegoenez, 2006an, azkenean, 396/2006 Errege Dekretua, martxoaren 31koa, amiantoaren eraginaren arriskupeko beharretan aplikatzeko segurtasun neurri zorrotzak ezartzen dituena, onartu zen.

Fibrozementua edo “amianto-zementua” ur, zementu eta amianto zuntzen nahastura homogeneotik sortutako gai artifizial non amianto zuntzek nahasturaren % 10 eta % 25 bitarte osatzen baitute. 2013ko martxoaren 14an, Europako Parlamentuak ebazpen argi bat onartu zuen. Bertan aipatzen da ur sareetan amiantoa dagoela, eta zehazki, “amianto-zementuzko” hoditerien bidez banatzen den edateko uran”. Ebazpen horren 37. atalean, bereziki nabarmentzen dira amiantoa arnastearekin lotutako gaitzak (biriketako minbizia eta pleurako mesotelioma), baina aipatzen da, baita ere, “…fibrozementuzko hodietan barna datorren ura, eta zuntz horiekin kutsatutakoa, edatea osasunarerako arriskutsua dela eta zenbait hamarkada igaro daitezkeela, kasu batzuetan berrogi urte baino gehiago, adierazi arte…”.

Amiantoaren eraginpean egon izanaren ondoriozko gaixotasun sintomak detektatzen zailak izan ziren urte askotan; izan ere, 10 eta 40 urte bitarte igaro eta gero agertu ohi dira. Hala ere, 1935az geroztik ezagutzen dira asbestoaren eraginpean egon izana eta biriketako minbizia zientifikoki lotzen dituzten lehenengo lanak. Asbestoa giza kartzinogenotzat sailkatu da eta halakotzat jo dute Estatu Batuetako Osasun eta Giza Zerbitzu Sailak, Ingurumen Babes Bulegoak eta Minbiziaren Ikerkuntzarako Nazioarteko Bulegoak. Biriketako minbiziaz eta

el uso del Amianto y sus derivados. En España se prohíbe totalmente la utilización del amianto en el año 2001 (Orden Ministerial de 7 de diciembre de 2001) adelantándose así al plazo máximo de 2005 previsto por la UE. Debido a lo extendido de su uso, se aprueba finalmente en el año 2006 el Real Decreto 396/2006, de 31 de marzo en el que se establecen estrictas medidas de seguridad aplicables a los trabajos con riesgo de exposición al amianto.

El fibrocemento o “amianto-cemento” es un material artificial obtenido por la mezcla íntima y homogénea de agua, cemento y fibras de amianto, en las que estas representan entre el 10 y el 25% de la mezcla. El 14 de marzo del año 2013 el Parlamento Europeo aprobó una resolución clara donde hace referencia a la presencia de amianto en las redes de agua y más detalladamente en “el agua potable que se distribuye a través de conductos de amianto-cemento”. En su apartado 37 se hace especial hincapié en las enfermedades cancerígenas relacionadas con la inhalación de amianto (cáncer de pulmón y mesotelioma pleural), pero también se menciona que “… la ingestión de agua procedente de tuberías de fibrocemento y contaminadas con dichas fibras, que son reconocidas como riesgo para la salud y pueden tardar varios decenios, en algunos casos más de cuarenta años en manifestarse….”.

Los síntomas de enfermedad por exposición al amianto fueron durante muchos años difíciles de detectar, ya que suelen aparecer entre 10 y 40 años después de la exposición al material. Aun así, desde 1935 se conocen los primeros trabajos que relacionan científicamente la exposición al asbesto y cáncer de pulmón. El asbesto ha sido clasificado como un cancerígeno humano reconocido por el Departamento de Salud y Servicios Humanos de los Estados Unidos, por la Oficina de Protección Ambiental y por la Oficina Internacional para la Investigación del Cáncer. Además del cáncer de pulmón y del mesotelioma,

mesoteliomaz gain, ikerketa batzuek iradokitzen dute lotura bat dagoela asbestoaren eraginpean egotearen eta kolon-ondesteko minbiziaren eta urdail-hesteetako minbiziaren artean, bai eta eztarriko, giltzurrunetako, esofagoko edo behazuneko minbizia izateko arrisku handiagoa ere.

algunas investigaciones sugieren que existe una relación entre la exposición al asbesto y el cáncer colorrectal y el cáncer gastrointestinal, así como un riesgo mayor de padecer cáncer de garganta, de riñón, esófago y de vesícula biliar.

Guztiz debekatuta badago ere, gure hiri eta herrietan, osasunari kalte handia egin diezaiokeen milioika amianto tona dago oraindik. Gai horrekin kutsatzeko bi bide daude:

A pesar de la prohibición total, en nuestras ciudades y pueblos, aún quedan millones de toneladas de amianto que pueden suponer un potencial riesgo para la salud, existiendo dos formas de exposición a este material:

Inhalazioz. Airean askatutako asbesto zuntzak arnasteagatik. Gaur egun, amiantoa duten produktuak eraistean, eroanbideak konpontzean edo amiantoaren degradazio naturalaren beraren ondorioz arnas daiteke, nagusiki.

Por inhalación: La exposición proviene principalmente de la inhalación de fibras de asbesto en el aire. En la actualidad se da principalmente en la demolición de productos con amianto, en trabajos de reparación de estas conducciones o debido a la propia degradación natural del material.

Irensketaz. Asbestoz kutsatutako elikagaiak edo likidoak (fibrozementuzko hodietatik doan ura, adibidez) irensteagatik.

Por deglución: La exposición se produce al ingerir alimentos o líquidos contaminados con asbesto, como el agua que fluye por tuberías de fibrocemento.

Asociación Española de Abastecimientos de Agua y Saneamientos (AEAS) eta Asociación Española de Empresas Gestoras de los Servicios de Agua a Poblaciones (AGA) elkarteek egindako “Encuesta Nacional de 2012 de Suministro de Agua Potable y Saneamiento en España” inkestaren arabera, 150.000 km ditu hornidura sare osoak, eta 95.000 km, saneamendu edo estolda sare osoak.

Por su parte, la Encuesta Nacional de 2012 de Suministro de Agua Potable y Saneamiento en España, realizada por la Asociación Española de Abastecimientos de Agua y Saneamientos (AEAS), y la Asociación Española de Empresas Gestoras de los Servicios de Agua a Poblaciones (AGA), estima la longitud de las redes de abastecimiento en 150.000 km y en 95.000 km las redes de saneamiento o alcantarillado.

Biak bat datoz esatean, ur hornidura sareen kudeaketaren jabetzari edo titulartasunari dagokionez, % 60 administrazio publikoek kudeatzen dutela osorik edo zati batean. Ur hornidura sareen osaerari dagokionez, AEAS elkartearen 2006ko inkestaren arabera, fibrozementua zen garai hartan gai ohikoena

Ambos informes coinciden que, en cuanto a la propiedad o titularidad de la gestión de las redes de abastecimiento de agua: el 60% estaría gestionada total o parcialmente por administraciones públicas. Sobre la composición de las redes de abastecimiento de agua, según la Encuesta de 2006 de la AEAS, el fibrocemento era

(sareen % 30, 45.000 km inguru) biztanle gutxien zituzten herrietan bereziki. 2008ko inkestan, % 26,4 izateraino jaitsi zen (gutxi gorabehera 40.000 km).

entonces el material más común (30% de las redes, unos 45.000 Km.), especialmente en las poblaciones con menor número de habitantes. En la Encuesta de 2008, esta cifra disminuyó hasta el 26,4% (aproximadamente unos 40.000 Km).

Beraz, substantzia horiek osasunean duten eragina aintzat hartuta, epe labur/ertainerako plan bat ezarri beharra dago, substantzia hori ezabatuko duena udal ekipamendu publikoetatik (eskolak eta abar), eta are premia handiagoaz oraindik, edateko uraren eroanbideetatik. Jabetu behar gara edateko uraren erabiltzaile eta kontsumitzaileei ez ezik, horrelako instalazioak manipulatu eta konpondu behar dituzten langileei, eta ingurumenari, ere eragiten dien arazo bat dela. Izan ere, arazoa ez da soilik material hori ezabatzea, baita ere, gero modu seguru eta jasangarrian non utzi erabakitzea. Baina arazo itzela izanagatik ezin dugu saihestu osasun publikorako arrisku larri hori ezabatzeko premia larria.

Por tanto, por las afecciones de estas sustancias a la salud de las personas, se impone la necesidad de establecer un plan a corto/medio plazo que erradique este producto de aquellos equipamientos públicos municipales (colegios, etc) y de manera más urgente aún de las propias conducciones de agua potable en donde esté todavía presente. Hay que ser consciente de que es un problema que no sólo alcanza a los usuarios y consumidores de agua potable sino también a los propios trabajadores/as, que tienen que manipular y reparar este tipo de instalaciones, y al medio ambiente, dado que el problema no consiste exclusivamente en eliminar este material sino también en donde depositarlos posteriormente de manera segura y sostenible. Pero no por ser el problema gigantesco podemos eludir la necesidad urgente de eliminar este riesgo grave para la salud pública.

Gogora ekarri behar dugu Eusko Legebiltzarrak 2002ko maiatzean aho batez hartutako erabakia. Erabaki hartan, Eusko Jaurlaritzari eskatzen zitzaion egin zezala, udalekin eta herritarrekin elkarlanean, pabiloi, eraikin eta instalazioetan egon zitekeen amiantoaren inbentario bat langileen eta bizilagunen osasuna bermatzeko amiantoa ezabatzeko lanetan”.

Debemos recordar el acuerdo adoptado por el Parlamento vasco en mayo de 2002 por unanimidad en el que se "instaba al Gobierno vasco a realizar, en colaboración con los ayuntamientos y la ciudadanía, un inventario del amianto instalado en pabellones, edificios e instalaciones para garantizar la protección de la salud de los trabajadores y vecinos en las tareas de desamiantado".

Udal mailan, aurreko agintaldian bertan, oinarriak jarri ziren udal azpiegituretako amiantoaren jarraipena eta kontrola egiteko. Agintaldi honetan, hasitako lanarekin jarraitu beharra onartu da hiriko amiantoaren mapa prestatze aldera. Altzako kiroldegiaren kasuak mapari premiaz ekin beharra azaleratu du hango lurrak modu desegokian tratatzeak duen arriskuaren aurrean.

A nivel municipal ya desde la anterior legislatura se establecieron las bases para el seguimiento y control del amianto en las infraestructuras municipales. En esta legislatura, se ha aprobado la necesidad de continuar con la labor emprendida de modo que se realice el mapa del amianto de la ciudad. El caso del Polideportivo de Altza ha supuesto la evidencia de acometer tal mapa de forma urgente ante el posible peligro que un

tratamiento inadecuado del terreno hubiera supuesto.

Batzordean, zinegotzi ordezkariak azaldu zuen edateko uraren banaketa sarearen % 98 fibrozementuzkoak ez diren hodiez osatuta dagoela, eta gainerako % 2 katalogatu gabe dagoela, baina katalogatuta noiz egongo den xehetasunik ez zuen eman.

En comisión, el Concejal Delegado explicó que 98% de la red municipal de distribución de agua potable está formada por tuberías que no son de fibrocemento y que el 2 % restante está pendiente de catalogar, pero no nos dió detalles sobre cuándo se catalogarán.

Amiantoaren mapa prestatzeko lanei eta emaitzen aurkezpenari buruz galdetu genuen. Zinegotzi ordezkariak azaldu zigun mapa egiteaz arduratuko den batzordea eratzeke dagoela eta, beraz, ezin dela aurreikusi noiz aurkeztuko diren emaitzak. Ez dugu eskatzen emaitzak entregatzeko data ematea, baizik eta helburu bat jartzea, beste edozein proiektutan bezala.

Preguntamos por la elaboración del Mapa del Amianto y por la presentación de sus conclusiones. El Concejal Delegado nos explicó que la comisión que se encargará de elaborar este Mapa está pendiente de conformarse y que por lo tanto no se podía estimar cuando podrá presentar conclusiones. No pedimos una estimación de la fecha de entrega de las conclusiones sino que se marque un objetivo, como en cualquier proyecto.

Udal gobernuak ez du eperik jarri amiantoaren mapari ekiteko, eta beraz, epe mugarik ezarri ezean, zail gertatzen da gure hiritik amiantoa ezabatzeko egingo diren jarduerak aurreikustea.

El gobierno municipal no ha establecido un plazo para acometer el mapa del amianto y por tanto sin un horizonte marcado resulta complicado preveer las actuaciones que se desarrollarán al objeto de erradicar el amianto de nuestra ciudad.

Horiek horrela, hau da gure

Por todo ello, Irabazi Donostia presenta la siguiente:

KONTROL MOZIOA

MOCION DE CONTROL

1. Donostiako Udalbatzak gobernu taldeari eskatzen dio zehatz dezala edateko uren banaketa sareko hoditerian, oraindik zehaztu gabeko zatian, erabilitako materiala.

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a determinar el material empleado en las tuberías de la red municipal de distribución de agua potable cuya naturaleza queda, a día de hoy, desconocida.

2. Donostiako Udalbatzak gobernu taldeari eskatzen dio finka dezala denbora-helburu bat amiantoaren mapa aurkezteko.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a marcar un objetivo temporal de presentación del Mapa del Amianto.

3. Donostiako Udalbatzak gobernu taldeari eskatzen dio ezar dezala, amiantoaren maparen barruan, udal azpiegitura publikoetatik, eta

3. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a establecer, dentro del Mapa del Amianto, un

bereziki edateko uren eroanbideetatik, beharrezkoa balitz, amiantoa (edo haren eratorriak) ezabatzeko kronograma bat. Kronograma horrek agintaldi hau ezarri beharko luke epemugatzat, osasunerako gai kaltegarri horien ezabaketa muga horretatik aurrera gauza burutua izate aldera.

cronograma de la eliminación del amianto (o derivados) de las infraestructuras públicas municipales y en especial de las correspondientes a conducciones de agua potable si se presentara el caso. Ese cronograma deberá establecer esta legislatura como horizonte temporal a partir del cual la erradicación de estos materiales perjudiciales para la salud deberá ser un hecho.

4. Donostiako Udalbatzak gobernu taldeari eskatzen dio eska diezaiela laguntza beste erakunde publiko batzuei, Aldundiari edo Eusko Jaurlaritzari, adibidez, azpiegitura publikoetan horrelako materialik batere ez egotea posible egiteko.

4. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a solicitar la colaboración de otras instituciones públicas, tales como Diputación y Gobierno Vasco para hacer posible la erradicación de estos materiales en infraestructuras públicas.

Donostia a 17 de Febrero de 2017

Donostia, 2017ko otsailaren 17a

Izpta.: Loïc Alejandro,
Irabazi Donostia taldeko zinegotzia".

Fdo. Loïc Alejandro
Concejal del Grupo Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Loïc Alejandro jaunak, Ricardo Burutaran Ferre jaunak eta Alfonso Gurpegui Ruiz jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. Loïc Alejandro, D. Ricardo Burutarán Ferré y D. Alfonso Gurpegui Ruiz, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**24. KONTROL MOZIOAREN 1.GO PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 24:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 17 – (7) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 17 – (7) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**

ABSTENTZIOAK: 0

ABSTENCIONES: 0

**24. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 24:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

**24. KONTROL MOZIOAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 24:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 17 – (7) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 6 – EH BILDU**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 17 – (7) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 6 – EH BILDU**

**24. KONTROL MOZIOAREN 4. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 4 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 24:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.25. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA Taldeak egina, Giza Eskubideen Zinemaldia dela eta.**

“Irabazi Donostia udal taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udalbatzaren Araudi Organikoko 98. artikulua oinarri, UDALBATZAN EZTABAIDATZEKO ondorengo MOZIOA aurkezten du, Giza Eskubideen Zinemaldia dela eta, hil honetan Pertsonentzako Zerbitzuetako Batzordean egindako interpelazioaren

**II.2.25. Moción de control .que presenta el Grupo IRABAZI DONOSTIA sobre el Festival de Cine y Derechos Humanos.**

“Amaia Martin Garin, Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN PARA SU DEBATE EN EL PLENO, sobre el Festival de Cine y Derechos Humanos, fruto de la interpelación en la comision de Servicios a las Personas de este mes.

ondoriotzat.

JUSTIFIKAZIOA

Martxoaren 31n, Giza Eskubideen 15. Zinemaldia abiatuko da, eta apirilaren 7 arte iraungo du.

Gazteek zinemaldian parte hartzea bultzatzearren, zinemaldiaren barruan bada film laburren nazioarteko lehiaketa bat. Hala, ezarrita dago gazte epaimahai bat izango dela, 18 – 30 urte bitarteko ikus-entzuleek osatua. Gazte epaimahai horrek balioztatu ahalko du, giza eskubideei buruzko sentiberatzearen eta zinema kalitatearen irizpideei jarraituz, lehiaketako film laburretako bakoitza.

Epaimahaikide gaztearen eginkizunak egiteak, aurreko ekitaldiko arauek diotenez behintzat, EHUko aukerako unibertsitate kredituak lortzea ahalbidetzen du, bai eta unibertsitate pribatuetako ikasleentzat ere.

Hala ere, aurtengo zinemaldiaren jendarteratzean —zehazki, zinemaldiko epaimahaikide gaztetzat gazteen parte hartzea sustatzearren egin den txartelean—, ECTS sistemako kredituak Deustuko Unibertsitatetik eta Mondragon Unibertsitatetik lortzeko aukera baizik ez da aipatu.

Batzordean interpelazioa eginda, eta zinegotzi ordezkariak emandako azalpenen ondoriotzat, beharrezko ikusi genuen zinemaldiko epaimahaikide gaztetzat parte hartzera unibertsitateetako albait ikasle gehien sartzeko bideren bat bilatzea. EHUren beraren erabaki batek ekarri du haren ikasleek ECTS sistemako kredituterik ez eskuratzea; gainerako unibertsitateek, berriz, baiezkoarekin erantzun dute. Uste dugu beharrezkoa dela EHUrekin hitz egiten jarraitzea, sortutako egoeraren berri jakin dezaten eta, horrela, konponbideren bat aurkitu

JUSTIFICACIÓN

El próximo día 31 de marzo dará comienzo a la quinceava edición del Festival de Cine y Derechos Humanos, el cual se prolongará hasta el 7 de abril.

Al objeto de potenciar la participación de la juventud en el Festival de Cine, dentro del mismo, existe un concurso internacional de cortometrajes, y así está establecido la existencia de la figura del jurado joven, un publico de entre 18 y 30 años, el cual va a poder valorar, atendiendo a criterios de sensibilización en torno a los derechos humanos y de calidad cinematográfica, cada uno de los cortometrajes a concurso.

El cumplimiento de las funciones del Jurado Joven posibilitaba, al menos según las normas del mismo, en la edición anterior la obtencion de créditos universitarios de libre elección en la UPV/EHU e igualmente para el alumnado de universidades privadas.

Sin embargo, en la divulgación de este Festival de Cine, en concreto en la tarjeta que se ha realizado para fomentar la participación de la juventud como jurado joven del Festival, se recoge únicamente la posibilidad de obtención de créditos ECTS de Deusto y Mondragon Unibertsitatea.

Tras la interpelación en comisión y fruto de las explicaciones dadas por el concejal delegado nos planteamos la necesidad de buscar una solución para la incorporación de todo el alumnado universitario posible en la participación como jurado joven del Festival. Se trata de una decisión de la propia UPV/EHU la que ha determinado la no obtención de ECTS para su alumnado, frente a la respuesta positiva del resto de universidades. Consideramos necesario continuar dialogando con la UPV/EHU al objeto de trasladar la situación generada y así poder encontrar una solución.

ahal izatearren.

Horregatik aurkezten dugu ondorengo

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak Gobernu taldeari hertsatuki eskatzen dio berriz hitz egin dezala EHUrekin, Giza Eskubideen Zinemaldiari buruzko hitzarmen bat sinaturik hurrengo urteetan epaimahaikide gaztetzat parte hartzen duten ikasleek ECTS sistemako kredituak lortu ahal izan ditzaten.

Donostia, 2017ko otsailaren 17a

Izpta.: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia taldearen bozeramailea".

Por este motivo planteamos la siguiente:

MOCIÓN DE CONTROL

1. - El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al equipo de gobierno a retormar el diálogo con la UPV-EHU al objeto de conseguir para próximas ediciones del el Festival de Cine y Derechos Humanos un convenio que permita obtener créditos ECTS a los y las estudiantes que participen como jurado joven.

Donostia a 17 de Febrero de 2017

Fdo.: Amaia Martin Garin
Portavoz del Grupo Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Amaia Martin Garin andreak, Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak eta Juan Ramon Viles Mitxelena jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as Dª. Amaia Martín Garín, Dª. Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga y D. Juan Ramón Viles Mitxelena, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 14 – (7) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 14 – (7) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0**

--------------

**II.2.26. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA Taldeak aurkeztua, herritarrek erabiltzeko prentsaurreko aretoa dela eta.**

**II.2.26. Moción de control que presenta el Grupo IRABAZI DONOSTIA sobre la sala de rueda de prensa de uso ciudadano.**

"Irabazi Donostia udal taldeko zinegotzi Loïc Alejandrok, Udalbatzaren Araudi Organikoko 98. artikulua oinarri, UDALBATZAN EZTABAIDATZEKO ondorengo KONTROL MOZIOA aurkezten du, 2017ko otsailaren 13an Zerbitzu Orokorretako Batzordean herritarrek erabiltzeko prentsaurreko aretoaz egindako interpelazioaren ondorio.

JUSTIFIKAZIOA

Udaletxean bada gune bat, herritarrek prentsaurrekoak edo bestelako jendaurreko aurkezpenak egiteko erabil dezaketena. Legegintzaldiaren hasieran, areto horrek bazituen hamabost bat aulki, hotzetatik eta zaratatik babesteko kristalezko horma bat, eta hedabideak mahaira zuzenean konektatzea eta anplifikatzea ahalbidetzen zuen soinu ekipamendu bat.

Gaur egun, jadanik ez dago kristalezko hormarik eta soinu ekipamendurik, eta bazter batean mahai baten inguruan jarritako 6 aulki besterik ez da geratzen.

Batzordean, zinegotzi ordezkariak ibilbide historikoa egin zuen, prentsaurrekoetarako aretoen erabileraz, eta adierazi zuen ezen, herritar talde batek areto hori behar duenean, aulkiak jartzen direla, eta gero kendu egiten dituztela. Era berean, esplikatu zuen ez zegoela asmorik herritarrei areto hori erabiltzea zailtzeko, eta guztiz irekita zegoela gune hori hobetzeko proposamen onuragarriei, edo herritarrentzat adierazpen publikorako gune eroso eta ekipatu bat jartzeko irtenbideak bilatzeari.

Uste dugu garrantzitsua dela herritarrei horrelako gune bat eskaintzea; eta, alde horretatik, aretoa hobetzeko lan batzuk egin litezke:

• Neguan, hotz handi samarra egiten du

"Loïc Alejandro, Concejal del Grupo Municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL PARA SU DEBATE EN EL PLENO, fruto de la interpelación sobre la sala de rueda de prensa de uso ciudadano en la Comisión de Servicios Generales del 13/02/2017.

JUSTIFICACIÓN

Existe un espacio, dentro de la casa consistorial, que la ciudadanía puede utilizar para realizar ruedas de prensa u otro tipo de presentaciones públicas. Al inicio de la legislatura, esa sala contaba con una quincena de sillas, una pared de cristal que protegía del frío y del ruido, y un equipo de sonido que permitía amplificación y conexión directa a la mesa por parte de los medios.

Hoy en día, ya no hay pared de cristal ni equipo de sonido, y solo quedan 6 sillas colocadas alrededor de una mesa en una esquina.

En comisión, el Concejal Delegado hizo un recorrido histórico del uso de las distintas salas dedicadas a las ruedas de prensa, y comentó que cuando un colectivo ciudadano necesitaba esta sala, se disponen las sillas y se las quitan después. Del mismo modo, explicó que no había ninguna intención de dificultar el uso de esa sala por la ciudadanía y que estaba totalmente abierto a propuestas en positivo para mejorar el espacio o buscar soluciones para proporcionar a la ciudadanía un espacio de expresión pública confortable y equipado.

Nos parece importante proporcionar a la ciudadanía un espacio de esas características, y en este sentido se podrían realizar algunas actuaciones para mejorar la sala:

En invierno, hace bastante frío en este espacio.

gune horretan. Bada erradiadore bat, aretoa berotzeko aukera ematen duena, eta prentsaurrekoren bat egingo den egunetan piztu liteke. Beroa alferrik gal ez dadin, interesgarria deritzogu banantze fisikoren bat jartzeari (adibidez, kristalezko horma bat). Horrek gainera, zaratatik ere babestuko luke, jende asko baldin badago.

Hay un radiador que permite calentar la sala y que se podría activar los días que hay alguna rueda de prensa. Para no desperdiciar el calor, colocar algun tipo de separación física como una pared de cristal nos parece interesante (además de proteger también del ruido si hay mucha gente).

• Gure taldeak areto hori erabiltzeko aukera izan du, hedabideak oraindik soinu mahaira konekta zitezkeenean. Askotan, saiatu eta gero, ez ziren konektatzen, sistema ez zelako ona. Baina badakigu baliagarria izango litzaiekeela.

Nuestro grupo ha tenido ocasión de utilizar esta sala cuando todavía los medios se podían conectar a la mesa de sonido. Muchas veces, después de haberlo intentado, no se conectaban porque el sistema era deficiente. Pero sabemos que es algo que les sería útil.

• Herritar taldeen prentsaurreko batzuetara joan gara legegintzaldi honetan, eta, zenbaitetan, pertsona batzuek zutik geratu behar izan zuten, ez zegoelako nahikoa aulki. Horregatik uste dugu prentsaurrekoan 15 bat aulki egon beharko liratekeela. Aulki horiek beti hor egon litezke, mantentze ahaleginak saihesteko.

Hemos asistido a algunas ruedas de prensa de colectivos ciudadanos en esta legislatura, y varias veces, algunas personas tuvieron que quedarse de pie por falta de sillas. Por ese motivo creemos que un sala para ruedas de prensa ciudadanas debería contar con unas 15 sillas. Estas sillas podrían quedarse de forma permanente para evitar esfuerzos de mantenimiento.

Hala ere, dena delakoagatik gune hori egokitu ezin bada, uste dugu garrantzitsua dela ordezko konponbideren bat bilatzea, herritarrek prentsaurrekoak baldintzarik onenetan egin ahal izateko. Udaletxea guztion etxea da, eta herritarrei egoera onean dagoen gune bat eskaini beharko genieke, jendaurreko aurkezpenak egin ditzaten.

No obstante, en caso de que, por un motivo u otro, el espacio mencionado no pudiera ser acondicionado, creemos que es importante buscar una solución alternativa para que la ciudadanía pueda realizar ruedas de prensa en las mejores condiciones. El Ayuntamiento es la casa de todas y todos, y deberíamos proporcionar a la ciudadanía un espacio en buenas condiciones para que pueda hacer presentaciones públicas.

Horregatik aurkezten dugu ondorengo

Por estos motivos planteamos la siguiente:

KONTROL MOZIOA

MOCIÓN DE CONTROL

1. Donostiako Udalbatzak Gobernu Taldeari hertsatuki eskatzen dio egokitu dezala herritarren prentsaurrekoetarako egungo aretoa, ekipamendu hauek jarrita:

◦ hedabideek erabil dezaketen soinu sistema bat,

